

MBA EXECUTIVE

Enpresen Zuzendaritzako Masterra (2007/2008)

SARRERA

MBA Executive programak OTALORA (MCCren Zuzendaritza Garapen Zentroa) eta MONEren (Mondragon Negozio Eskola) arteko lankidetzaz izan du sorburu eta Mondragón Unibertsitatearen (M.U.) babes akademikoa dauka.

Programaren helburu eta edukiek ondo zehaztutako norabide espezifikoak dute: zuzendaritzan erantzukizuna duten pertsonen formazio- eta garapen-beharrei kalitatezko erantzun berritzaileak ematea.

MBA Executive programa honek, bai edukien aldetik eta baita metodologia didaktikoaren aldetik ere, balio bereizgarria ekarriko dien eskaintza jartzen du zuzendarien esku, **parte-hartzea, lankidetzaz eta erantzukizun soziala** oinarritzat hartuta eta enpresa-efizientzia lortze aldera:

- Edukiak, Zuzendaritza Gestioaren azken kontzeptu eta tresnak jasoz batera, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren kulturaren inspiraturik datoz, bere balio eta egungo jarduerekin.
- Metodologiak parte-hartzean eta enpresekiko harremanetan oinarritutako funtsezko printzipioek ere jasotzen ditu. Harreman hori hainbat eratan agertzen da: irakasle-zuzendarien lankidetzaz, benetako kasuen azterketa, enpresetara bisitak, benetako proiektuei buruzko lan akademikoak, etab...

Aldaketa eguneroko kontua den garai honekin bat etorriaz, MBA Executive programarekin transmititu nahi dugun balio bereizgarriak gaitasun profesionalak eguneratu eta garatzeko zuzendarien nahiak aseko dituelakoan gaude.



MISIOA ETA HELBURUAK

MBA Executive-ren misioa honako hau da: **Zuzendarien potentzial pertsonal-profesionalaren garapenerako eta enpresa-proiektuaren sustatzaile gisa betebeharretarako lagungarria izatea.**

Misioa honako helburu hauen bitartez gauzatuko da:

- Zuzendariari enpresaren eta enpresa-kudeaketaren ikuspegi integrala eta sistematikoa emanez.
- Nazioarteko eta kultura testuinguruaren aniztasuna aintzat hartuta, erakundeak zenbait esparrutik -estrategia, industria, ekonomia eta finantzak, marketin-merkaturatzea, pertsonak- kudeatu ahal izateko kontzeptuak berrindartuz eta eguneratuz.
- Berrikuntza eta aldaketa zuzendariaren jarrera pertsonal eta profesional gisa sustatuz.
- Lidergoa, parte-hartzea eta lankidetzarako gaitasuna garatuz, errendimenduaren optimizazioa eta pertsonen gogobetetzea ahalbidetzeko elementu gisa.



METODOLOGIA

Zuzendaritzako erantzukizuna duen pertsonak ikasitakoaren aplikazioa eguneroko jardueran gauzatzeko erraztasuna emango dion dinamika sortzera bideratutako metodologian oinarritzen da. Horretarako honako alderdi hauek kontuan hartu dira:

Irakasleen kalitatea

Gure irakasleria osatzen duten pertsonak bi ezaugarri dituzte bereizgarri:

- Gaitasun teknikoa, enpresarekin zuzendari edo aholkulari moduan jardutearen ondorioz.
- Gaitasun pedagogikoa, ezagutza transmititzea eta ikaskuntza erraztea ahalbidetzen dizkiena.

Partaideekiko harremana

Partaide-kopurua txikia izateak irakasleekin harreman estua izateko aukera ematen du eta, era berean, esku artean darabilten proiektuei buruz aholkuak edo informazio espezifikoak hartzeko.

Talde-lana

Programan zehar partaideen artean elkarlanean jarduteko aukera guztiak aprobetxatzen dira, pertsonaren garapenerako eta errendimendua hobetzeko onuragarria den lan-mota horren aldeko sentsibiltatea sustatze aldera.

Edukien egitura

Helburuen lorpenerako oinarrizko euskarria edukiak osatzen dute, bai horien aukerketa bai egituraketari dagozkienean.

MBA Executive programak 520 ordu ditu, modu honetan antolatuta:

1. **360 ordu Gestiorako Gaitasun Tekniko eta Zuzendaritzako Gaitasunaren** honako arlo hauek lantzeko erabiliko dira:
 - . Estrategia
 - . Marketing
 - . Finantzak
 - . Pertsonak
 - . Produkzioa eta Logistika

Arlo horiek lantzeko, aldi bi izango dira helburuak bereiztuta:

I.Aldia: Oinarrizko kontzeptuetan sakonduko da

II. Aldia: Eragiketen aplikagarritasunean sakonduko da.

Pertsonen arloarekin zerikusia duten 2 egonaldi izango dira.

2. **160 ordu amaierako proiekturako.**



ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

José Luis Abaunz, MONE-Mondragón Negozio Eskolako zuzendaria, eta Javier Santos, Otalora MCCko Zuzendaritza Garapen Zentroko Formazio-kudeatzailea, arituko dira MBA Executive-ren zuzendaritza eta koordinazio orokorraren lanetan.



EGUTEGIA

MBA Executive programaren egutegia **2007ko azaroaren 5tik 2008ko ekainaren 17ra** izango da, astelehenetan egun osoko jardunaldia 9,00etatik a 18,30era eta astearteetan 9,00etatik 13,00etara, MCCren Zuzendaritza Garapen Zentroko Otalorako egoitzan, Aretxabaletan (Gipuzkoa)



ONARPEN-BALDINTZAK

Partaideek gutxieneko honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- . Unibertsitate titulua
- . Zuzendaritzan 3 urteko eskarmentua, gutxienez

Eskatutako dokumentazioa:

- . Izena emateko orria
- . Curriculum vitae
- . 2 argazki
- . NAN edo pasaportearen kopia
- . Ziurtagiri Akademikoen kopia konpultsatua
- . Bestelako informazio interesgarri osagarria

Programaren helburuetara egokitzea eta taldearen behar adinako berdintasuna ziurtatze aldera Onarpen Batzorde bat eratu da, bertan eskaerak aztertu eta egoki deritzon hautatze prozesua ezartzeko.

Izena emateko eskaerak Otalorara bidali behar dira **2007ko urriaren 8a** baino lehen, Marian Uribarreni zuzenduta; informazio gehiago behar izanez gero: muribarren@otalora.mcc.es



MATRIKULA

Matrikularen kostua: 12.750 euro partaideko.



IRAKASLEAK

MBA Executive Programa ematen Mondragón Unibertsitateko Sail ezberdinetako irakasleek arituko dira, Enpresa Zientzien Fakultatearen gidaritzapean, eta baita ospe handiko beste erakunde batzuetako irakasleak ere.

Horra irakasle batzuen erreferentziak:

- . Agirre, Amaia, M.U.ko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea
- . Agirre, Izaskun, M.U.ko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea
- . Alcaide, Juan Carlos, Marketinean soziologo aditua: ISMI-TATUM-eko zuzendaria
- . Aparicio, Celia, LKS-ekoa
- . Cancelo, Antonio, MCCko lehendakari ohia
- . Dans, Enrique, Instituto de Empresa-koa
- . De la Rica, Enrique, ESEUNE-ko zuzendari nagusia
- . Echeandia, Alberto, Hobest-eko aholkularia
- . Egaña, Miguel M^a, M.U. ko Goi Eskola Politeknikoko irakaslea
- . Isasti, Armin, Saiolan-eko zuzendaria

- . Murgiondo, Fernando, M.U.Ko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea
- . Pz. Calleja, Antton, ekonomia alorrean aditua
- . Pz. Carballo, Angel, Abrente Asesores de Gestión-eko zuzendari nagusia
- ..Sainz de Vicuña, José M^a, SDV zuzendari aholkularia. Irakasle zenbait unibertsitatetan